

Liburuak aske uzteko hozkailua dago Leitzan

Liburuak uzteko eta hartzeko hozkailua jarri zuten duela aste batzuk Leitzako turismo puntuan. «Zertarako hozkailu batean?» esango du batek baino gehiagok, ba «eskuz esku ibiltzeko» izango litzateke erantzun egokiena. Ibili eta noski, irakurtzeko. Hori baita liburu gehien helburu nagusietako bat. «Jendeak bertan topatu dezazken liburu, aldizkari eta bestelakoak hartu dezazke etxera eramane eta irakurtzeko. Gainera, berak irakurrita edo etxean dituenak ere hozkailuan utzi eta beste batek hartzeko utz dezazke. Kontua da liburuak konpartitzea eta irakurtzeko zaletasuna zabaltzea herrian».

Marian Lasarteri otu zitzaion hozkailua bertan jartzea «ez da nire ideia izan. Duela urte batzuk, Donostiako ume parke batean ikusi nuen eta grabatuta gelditu zitzaidan ordutik. Beti egiteko nuen zerbait zen, baina denbora dexente pasa da ikusi eta jarri genuenetik». Kontua da «egun batean etxeko atarian botatzeko zegoen hozkailu zahar bat ikusi nuela eta berehala burura etorri zitzaidan: oraintxe da momentua».

Eskura izan arren tresna garrantzitsuenetakoa proiektu honetarako nahiko gorabehera izan zituzten bere asmoa gauzatzen baina azkenan izan behar zuena, izan zen. «Udaletxeko ordezkari eta liburutegiko arduradunari aipatu nizkien eta gustatu egin zitzaion» dio Marianek. Azken batean, «proiektu honen helburua liburuak zabaltzea da. Irakurtzea gustokoa duzunean, liburu berezi horiek gorde egiten dituzu baina aldi berean konpartitu nahi dituzu beste batzuekin, zuk jasotako mezua, sentitutakoa beste bati ere jakinarazteko».

Lasarteren semeak idatzitako bertsoak dion bezala, hozkailuak aukera eman nahi die irakurtzeko zaletasuna dutenei liburu bat etxera eramateko eta sobera edo hautsez beteta dauden horiek bertara ekartzeko.

Hozkailua plazako turismo gunean jarri zenetik «mugimentua sumatzen da. Utzitako liburuak 'desagertu' dira eta jendeak utzi ditu bereak. Sortu nahi zen mugimendua eman da eta gustora gaude» dio Lasartek. Gainera leitzarrak dioenez «errespeto osoz jokatzeko ari da jendea. Inork ez du kontrolatzen zeinek hartzen dituen edo uzten dituen liburuak, hor dago hozkailua jarrita bezala». Deus hautsi gabe, txukun dago hozkailua.

Azpimarratzeko zerbait dela dio Marianek, «oso gustora gaude hilabete hauetan behintzat jendeak errespetatu duelako». Gainera, «gure asmoa betetzen ari da eta irakurtzeko askatasuna aldarrikatzeko gune bihurtu da. Nahi duenak eramane dezake nahi duen liburuak». Bertan, euskarazko nobelak egon dira, baina baita erdaraz eta ingelesez ere. Umeen ipuinak edo 'kottileo' aldizkariak, denetarik noski.